

## **Ostiralean itxiko dute Urretxuko udal igerilekuko liburutegi zerbitzua**

### **Hilaren 5etik, herritarrek liburuak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko aukera izan dute**

Urretxu. Pagoeta udal igerilekuak zabalik jarraituko duen arren, ostiralean emango da bukatutzat aurtengo Bibliopiszina ekimena. Seigarren ekitaldi hau uztailaren 5ean jarri zen abian. Ordutik, egunkariak, aldizkariak eta liburuak izan dira igerilekuko zelaian jarritako txabolatxo batean. Helburua, herritarren artean irakurtzeko zaletasuna suspertzea da.

Bibliopiszinako irakurgaiak ezin direnez etxera eraman, irakurterrazak dira. Aurten, Udalak karpa bat alokatu du eta 236 liburu erosi ditu. Hauetako asko haur eta gazteei zuzendutakoak dira. Izan ere, hauen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzea komeni da eta, gainera, beraiek dira zerbitzu hau gehien erabiltzen dutenak. Bestalde, aurreko urteetan irakurgaiak igerilekuko sarreran izan dira. Aurten, ordea, zelaian jarri dituzte.

Idoia Narbaiza izan da egun hauetan guztietan Bibliopiszinaz arduratu dena. Bere esanetan, "goialdean jartzen den jendeari dezente kostatu zaio aurten behealdean gaudela konturatzea. Dena den, umeentzako, toki hobea da. Izan ere, leku gehiago dute lasai irakurtzeko eta jolasteko".

Haurrak dira txoko honetara gehien jo dutenak. "Oraindik irakurtzen ez dakiten ume txiki asko etortzen dira ipuinak hartzera. Bestalde, aurten, gaztetxoentzako aldizkariak ere baditugu eta arrakasta handia izan dute". Egunkariak ere lehenengoz sartu dira igerilekura. "Jende gutxik hartu ditu, beharbada arratsaldean irekitzen dugulako. Dena den, heldu gutxi etorri dira gurera". >a.z.